

**227/2025 EBAZPENA, OTSAILAREN 3EKOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, ZEINAREN BIDEZ BAIESTEN BAITIRA BALIABIDE ETA PROZESU ASISTENTZIALEN ANALISIKO ATAL SANITARIOKO BURU LANPOSTUA HAUTATZEKO DEIALDIAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO PERTSONEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ETA BALORAZIO BATZORDEAREN OSAERA, VITORIA-GASTEIZKO OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO ASISTENTZIA SANITARIOKO ZUZENDARITZAKO OSPITALEKO ARRETA KOORDINATZEKO ZUZENDARIORDETZAN.**

### **AURREKARIAK**

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 5eko 1067/2024 Ebazpenaren bidez, deialdia argitaratu zen Baliabide eta Prozesu Asistentzialen Analisisiko Atal Sanitarioko Buru lanpostua lehiaketa bidez betetzeko Vitoria-Gasteizko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzako Ospitaleko Arreta Koordinatzeko Zuzendariordeztan. (2024ko ekainaren 21eko EHAA, 121. zk. eta 2024ko uztailaren 3ko BOE, 160. zk.).

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, 15 egun balioduneko epea ezartzen da eskabideak aurkezteko, deialdiaren ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan azkenekoz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori 2024ko uztailaren 24an amaitu zen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 11ko 1526/2024 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web-orrian argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, lan-arloan indarrean den legediak aitortzen dizkidan eskumenak baliaturik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikulua araberako (azaroaren 14ko EHAA, 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

**EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.**– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian Baliabide eta Prozesu Asistentzialen Analisisiko Atal Sanitarioko Buru lanpostua betetzeko deitutako lehiaketan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea (I. eranskina).

**Bigarrena.**– Balorazio Batzordearen osaera onartzea (II. eranskina).

**Hirugarrena.**– Ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web-orrian argitaratzea.

**Laugarrena.**– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 3a.

  
 **Osakidetza**  
**ZUZENDARI NAGUSIA**  
**DIRECTORA GENERAL**

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
SUSANA LÓPEZ ALTUNA.

**I. ERANSKINA****BALIABIDE ETA PROZESU ASISTENTZIALEN ANALISIKO ATAL SANITARIOKO BURUA.**

Onartuen behin betiko zerrenda:

EDUARDO MILLÁN ORTUONDO

Baztertuen behin betiko zerrenda:

INOR EZ

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 3a.

## II. ERANSKINA

### BALIABIDE ETA PROZESU ASISTENTZIALEN ANALISIKO ATAL SANITARIOKO BURUAREN LANPOSTUA. BALORAZIO BATZORDEA

**Batzordeburua:**

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Ospitaleko Arreta Koordinatzeko zuzendariordea: Koldo Berganzo Corrales.

Ordezkoa: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Kalitateko zuzendariordea: Francisco Serna Rodríguez.

**Lehenengo batzordekidea:**

Donostialdeko ESiko Arreta Integratuko zuzendaria: Eider Uzkudun Lizaur.

Ordezkoa: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko zuzendariordea: Jorge Romeo Ollora.

**Bigarren batzordekidea:**

Arreta Integratuko Zuzendaria - Barrualde-Galdakaoko ESla: Miren Edurne Martínez Ayuso.

Ordezkoa: Zuzendariorde Medikoa - Arabako ESla: María Ángeles Calvo Gainzarain.

**Hirugarren batzordekidea:**

KSUko Fakultatibo Espezialista Medikoa: Gemma Fernández Peñalba (IVAPek proposatuta).

Ordezkoa: KSUko Fakultatibo Espezialista Medikoa: Rafael Sánchez Bernal (IVAPek proposatuta).

**Idazkaria:**

Hautaketako eta Horniketako zuzendariordea – Zuzendaritza Nagusia: Xabier Arauzo Uriarte.

Ordezkoa: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusia – Hautaketa Zerbitzuko burua: Miriam Aparicio Sáez.